

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Zertaz ari ziren bazekiten Reidek eta Adamsek

Duela ia mende laurden bat, ezker abertzale-
letik talka armatua gainditzeko erronkari
zuzen-zuzen begiratzen hasi zitzaionean,
HBko ordezkariak Irlandara jo zuten ira-
kaspen eske, Ostiral Santuko akordioa si-
natu berria zela. Jasotako aholkuetako batzuk harridu-
raz hartuak izan ziren hasieran, orduko euskal
agertokian zinez kontrakulturalak zirelako, baina gero
jokabidea zehazteko gida eta giltza bihurtu izan dira.
Bat Gerry Adams Sinn Feineko buruak erabili ohi zuen
(bere memoria liburu baten izenburua hemendik da-
tor): gauak dakarren iluntasun handiena juxtu egun-
sentiaren aurretik gertatzen da. Bestea Alec Reid apaiz
bakegilearen ahotik ikasi zuten: «Zuen proposamenak
gero eta arrazoizkoagoak diren neurrian, are arrazoiga-
be eta bortitzago jazarriak
izango zarete».

Norabide berean zihoa-
zen bi aholkuok: nolabait,
estatu boteretsu eta gerra-
zaleek konponbide proze-
sua urratzea ez zela batere
erraza izango ikusarazi nahi
zieten euskal lagunei. Segi-
tuan Lizarra-Garazi prozesu
hura ikasbide izan zuten
hauek. Gogorrago jokatuko
zuten gero estatuek, ilegalizazioarekin edo oraindik in-
darrean den 7/2003 Legearekin; maltzurrago 2006an,
Estatuko botere ezberdinen aitzakiarekin hitzartuta-
koa gauzatu gabe utziz; eta ezin itsuago hurrengo ha-
markadan, ETaren armagabetzea bera oztopatuz. Bai,
zertaz ari ziren bazekiten Adamsek eta Reidek.

Arnaldo Otegi eta Arkaitz Rodriguezen hilaren 18ko
adierazpenaren oihartzunak ekarri dizkit gogora ira-
kaspen haiek. Izan ere, arrazoi pilaketari arrazoi falta-
rekin erantzun dio zenbaitek, egunsentiko argi izpien
gainetik gaua betikotu nahian (eta ezinean).

Lau adibide emateagatik, aipagarriena PSEko orde-
zkariera dela esango nuke. Lehenik Idoia Mendiari eta
gero Patxi Lopezi entzun diedanez (ez da kasualitatea
izango, beraz), Aietetik hamar urte pasatuta «norberak

bere erantzukizunak» hartu behar ditu. EH Bilduk eta
Sortuk emandako mezu garbiaren ostean interpreta-
zio posible bakarra izango luke esaldiak: PSOE ere bere
arduraren jabe egiteko prest dela, tartean Idoia Mendia
lehendakariorde duen gobernuak zigilua jarritako tor-
turaren txostenarena. Baina ez ziren horretaz mintzo,
ez, segituan argitu digutenaren arabera.

Urriaren 18koak arrazoigabeko gehiago ekarri dizki-
gu. Iñigo Urkulluk adierazpen horretan ez dela «indar-
keria baloratzen» aipatu du; zertaz ari ziren bada Otegi
eta Rodriguez? ETBk ETak eragindakoa Euskal Herriko
historiaren pasarte ikaragarriena dela esan du, sare so-
zialetan berehalako erantzunak bolo-bolo barreiatuz.
Vocento taldeko egunkariak EH Bilduren kontrako itun
berria (80ko hamarkadako Ajuriaeneko haren antze-

Urriaren 18an ezker independentistak
pilatutako arrazoi berriei arrazoigabeko
erakustaldi batez erantzun diote, irlandar
apaiz bakezaleak aurreratu zigun moduan

koa) proposatu dute, presoan alde mobilizatzea ere
biktimak umiliatzea dela adierazteaz gain. Eskerrak
Alec Reidek abisatuta ginela, bai. Bitartean, gainera,
euskal gizartearen gehiengoa Urriaren 18an ezker in-
dependentistak markatutako estandarraren azpitik
ageri da, gordetzea komeni den EiTbren Foku inkestan.

Puntu kontraesankorren bat edo beste ikusi dute ez-
ker independentistaren zenbait kidek Aieten irakurri-
tako adierazpenean. Baina kontraesan askoz handiago-
ak askatu ditu –eta asmo hori izan gabe– errefusatu,
kritikatu edo gutxietsi nahi izan dutenen artean. Hau
guztia ez du entzuterik izan Alec Reidek, 2013. urtean
hil baitzen, baina ez zuen harrituta utziko. Lasai egote-
ko, egunsentia gelditzerik ez dela erantsiko lioke segi-
tuan Gerry Adamsek, aukera izanez gero. •